

# Ariketak71

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

## I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena eta hutsuneetan sartu:

1. Plateren eta azpilen artean, paper puska urdinez egindako azpi baten gainean botata, \_\_\_\_\_ ontziak eta kolore aldakorreko atun eta sardina latak ageri ziren.
2. Teologo nahiz \_\_\_\_\_ gehienek Aristotelismoak zekarren munduaren irudi filosofiko naturalago eta arrazionalagoa onartu zuten.
3. Funtsezko materiala hautatu ahala, beraz, komeni zaizu hura \_\_\_\_\_etan sailkatzea.
4. Loiuo aireportutik atera berri den hegazkinak zauri zuri bat eragin dio \_\_\_\_\_aren urdinkara ederrari.
5. Dena aldatu da: artzaintza, artzainen bizimodua, esplotazioak, herrien \_\_\_\_\_, laboreak, basoak.
6. \_\_\_\_\_ eskuan hartu eta begi aurrean jarri zuen.
7. “Dekoratutik zinemara” goiburuarekin, zinemaren kontzeptu teorikoen inguruko zinema zikloa antolatu du Bilboko Arte Eder museoko \_\_\_\_\_.
8. Bi \_\_\_\_\_ erabili zituen irudiak egiteko: batak uhin-luzera handiak \_\_\_\_\_ zituen; besteak, uhin-luzera txikiak.

filosofari • filosofo

diapositiba • filmina

ortzi • firmamentu

fitxero • fitxategi

zinemateka • filmoteka

fietlro • feltro

filtratu • iragazi

fisionomia • fisionomia

foie gras • foagras

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna



2. Jarraian aurkituko duzun testu zatia “Lanean euskaraz” ataleko “Pentsatu, sentitu eta egin” artikulutik atera dugu. Bila itzazu tartekatuz dizkiogun hamabi gramatika akats eta zuzendu.

[...] Demagun, aspaldi ikusi ez dugun lagun batzuekin egin dugula topo eta harekin egoteko irrikan gaudela. Gainera, badakigu aspaldian hemengo jakirik ez dute dastatu eta asko gustatzen zaiela jakitun, gure beste helburuetako bat bazkari goxo bat prestatzea da. Estimulua badugu, motibazio prozesua abian jartzeko aitzakia badugu eta horrelako beste esperientzia batzuk ere bai ezagutu izan ditugu, prestatu izan dugu otordurik beste batzuetan ere. Jarreraren eltzea osagaiez bete dugu, behar direna bota ditugu, gure ustez goxoagoa suertatzeko beharrezkoak diren kantitateak bota ditugu. Hala ere, eltzea, bere horretan ez du borborrik egingo, ez norbaitek intentzio edo konpromezurik hartzen ez badu sua pizteko, behintzat. Suan jarri dugu eltzea eta hasi da irakiten. Behar bada, hori nahikoa izango da gure helburua lortzeko; baina, beharbada, butanoa bukatu zaigu edo ondo ezik jarriko gara eta eltzekoa erre egingo zaigu. Hala ere, ez gaitezen ezkorrak izan eta pentsa dezagun intentziora babestu dugula, butanoa aldatzen dugula eta gure ondoeza joan egin dela komunetik behera. [...]

### 3. Sinonimoak /Antonimoak

#### Eman letra lodiz dauden hitzen sinonimoak

1. Gutunean, euskarak Justizia Administrazioan bizi duen egoeraren inguruko hausnarketa sakona eta **aldarri** ozena egitera gonbidatzen da.
2. Etxebizitzetako **trenkada** eraisketak eta banaketa berriak egiteko lizentzia eskatu dute.
3. Nafarroa aldean **litxarero** ugari bildu ohi zen ibai inguruetan kanpotarrei txanponak kentzeko asmoarekin.
4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa hondakin uren araztegieta-ko **lohia** tratatzeko aukeren azterketa egiten ari da.
5. Komunikabideak nahikoa **burrunba** ateratzen ari dira gai polemiko horren inguruan.

#### Lotu hitz bakoitza bere sinonimo eta antonimoekin

	sinonimoak	antonimoak
1 bidenabar	goraipatu, aintzatu	bigun, bihozbera, onbera
2 bentzutu	bihotzgabe, errukigabe	apropos, berariaz, beren-beregi
3 goretsi	etekin, irabazi	huts egin, porrot egin
4 anker	bide batez, iragaitzaz	galera, kalte
5 onura	irabazi, menperatu	gaitzetsi, gutxietsi

#### 4. Gramatika

Berridatz itzazu honako esaldiak *bait-* partikula erlatiboa erabiliz:

1. Euskaltzaindiak, IVAP eta Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean, kudeatzen duen *Administrazioa eta Zuzenbide Hiztegia* epeak betetzen ari da.

*Administrazioa eta Zuzenbide Hiztegia*, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

2. *Administrazioa* osotara Justiziari menderaturik dagoen mota horretako paradigmak guztiz aipagarriak dira.

Mota horretako paradigmak, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

3. Eskubideen erabilera oztopatu edo betebeharrak betetzen ez dituzten zenbait egitatek gizarte guztian eragiten dute.

Zenbait egitatek, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

4. Estatuaren eskuduntza eksklusiboa den Justizia *administrazioa* da horren guztiaren adibide garbia.

Justizia *administrazioa* da, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

**Gramatika ataleko artikuluan aipatzen den erlatibo subjektiboaren ildotik, saia zaitetz menderagailu egokia (-en edo -elako) ezartzen honako esaldietan:**

1. Ipintzako Udalak eta *Bili-bolo* aldizkaria argitaratzen du\_\_\_\_ Bolunburu elkarteak izenpetu duten hitzarmena bi urterakoa da.
2. Datorren urterako sinatu berri de\_\_\_\_ hitzarmenari buruz ezer ez dakitela aipatu didate sindikatuaren bulegoan.
3. Irulegieta Formazio Institutuak antolatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu zute\_\_\_\_ teknikarien auzia aztertuko du auzitegiak iruzurrik izan den aztertzeko.
4. Lanbide Heziketako Sari Nazionaletan errendimendu akademiko bikaina erakutsi dute\_\_\_\_ ikasleen merituak onartzen dituzte.

## I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena eta hutsuneetan sartu:

1. Plateren eta azpilen artean, paper puska urdinez egindako azpi baten gainean botata, **foie gras** ontziak eta kolore aldatzeko atun eta sardina latak ageri ziren.
2. Teologo nahiz **filosofo** gehienek Aristotelismoak zekarren munduaren irudi filosofiko naturalago eta razionalagoa onartu zuten.
3. Funtsezko materiala hautatu ahala, beraz, komeni zaizu hura **fitxategietan** sailkatzea.
4. Loiuo aireportutik atera berri den hegazkinak zauri zuri bat eragin dio **ortziaren** urdinkara ederrari.
5. Dena aldatu da: artzaintza, artzainen bizimodua, esplotazioak, herrien **fisionomia**, laboreak, basoak.
6. **Diapositiba** eskuan hartu eta begi aurrean jarri zuen.
7. Dekoratuak zinemara goiburuarekin, zinemaren kontzeptu teorikoen inguruko zinema zikloa antolatu du Bilboko Arte Eder museoko **zinematekak**.
8. Bi **feltro** erabili zituen irudiak egiteko: bata uhin-luzera handiak **iragazten** zituen, besteak uhin-luzera txikiak.

## 2. Akatsak zuzendu (Soluzioa: 24. orrialdean)

## 3. Sinonimoak / Antonimoak

### Eman letra lodiz dauden hitzen sinonimoak

- |                          |                                 |
|--------------------------|---------------------------------|
| 1. dei, garrasi, oihu    | 4. zikina, lizuna               |
| 2. horma, trenkadura     | 5. zarata, zalaparta, iskanbila |
| 3. lapur txiki, xixkalar |                                 |

### Lotu hitz bakoitza bere sinonimo eta antonimoekin

	sinonimoak	antonimoak
1 bidenabar	bide batez, iragaitzaz	apropos, berariaz, beren-beregi
2 bentzutu	irabazi, menperatu	huts egin, porrot egin
3 goretsi	goraipatu, aintzatu	gaitzetsi, gutxietsi
4 anker	bihotzgabe, errukigabe	bigun, bihozbera, onbera
5 onura	etekin, irabazi	galera, kalte

## 4. Gramatika

### Berridatz itzazu honako esaldiak *bait-* partikula erlatiboa erabiliz:

1. *Administrazioa eta Zuzenbide Hiztegia*, Euskaltzaindiak elkarlanean kudeatzen baitu, IVAP eta Deus-tuko Unibertsitatearekin; epeak betetzen ari da.
2. Mota horretako paradigmatik, Administrazioa osotara Justiziari menderaturik baitago, guztiz aipagarriak dira.
3. Zenbait egitatek, eskubideen erabilera oztopatu edo betebeharrak betetzen ez baitituzte, gizarte guztian eragiten dute.
4. Justizia administrazioa da, Estatuaren eskuduntza eskusiboa baita, horren guztiaren adibide garbia.

### Saia zaitetz menderagailu egokia (*-en* edo *-elako*) ezartzen honako esaldietan:

1. Ipintzako Udalak eta *Bili-bolo* aldizkaria argitaratzen **duen** Bolunburu elkarteak izenpetu duten hitzarmena bi urterakoa da.
2. Datorren urterako sinatu berri **delako** hitzarmenari buruz ezer ez dakitela dakitela aipatu didate sindikatuaren bulegoan.
3. Irulegieta Formazio Institutuak antolatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu **zutelako** teknikarien auzia aztertuko du auzitegiak iruzurrik izan den aztertzeko.
4. Lanbide Heziketako Sari Nazionalan errendimendu akademiko bikaina erakutsi **duten** ikasleen merituak onartzen dituzte.